


SOZIALIZAZIO PROZESUA 2018:
GIPUZKOAKO HERRITARREN KULTURA POLITIKOA

**HAUSNARKETARAKO ETA
ELKARRIZKETARAKO LAN SAIOAK
GIPUZKOAN ZEHAR**



BEZEROA:

AURKIBIDEA

1. SARRERA -----	3
2. PROZESUAK IZAN DITUEN HELBURUAK -----	4
3. PROZESUAK UTZI DITUEN HAINBAT DATU ETA EZAUGARRI -----	5
4. IKERKETARI BURUZ JASOTAKO BALORAZIOEN ONDORIOAK -----	6
5. AURRERA BEGIRA EGIKARITZEKO PROPOSATZEN DIREN LAN EREMUAK ETA PROIEKTUAK -----	10

1. SARRERA

Txosten honetan *Gipuzkoako herritarren kultura politikoa, 2017* izeneko ikerketa sozializatzeko egin diren lan saioen ondorio nagusiak jasotzen dira. Lan saio horiek 2018ko maiatzean eta ekainean egin dira, Gipuzkoako lau eskualde hauetan:

- Buruntzaldean
- Tolosaldean
- Debagoienan
- Oarso-Bidasoan

Horietan, tokiko hautetsiak izan dira lehentasunezko partaideak. Alkate, zinegotzi eta batzarkideekin batera, tokiko hainbat aditu ere gonbidatu izan dira saioetan. Horiez gain, herritarrak ere izan dira, haien berezko interesak bultzatuta.

Txosten honetan prozesu horrek izan dituen ondorio nagusiak jasotzen dira, honako atal hauen arabera:

- Prozesuak izan dituen helburuak.
- Prozesuak utzi dituen hainbat datu eta ezaugarri.
- Lan saioetan ikerketari buruz jasotako balorazioen ondorioak.
- Lan saioetan aurrera begira egikaritzeko proposatzen diren lan eremuak eta proiektuak.

Esan behar da aipamen berezia merezi dutela bilera horietan arratsalde bat eskaini duten pertsona guztiek: tokiko hautetsiak eta adituak. Doakiela horietako bakoitzari gure eskertza eginiko ahaleginarengatik eta izandako jarrerarengatik, haiek gabe irakurriko dituzuen hausnarketa hauek ez bailirateke sortu izango. Mila esker partaide bakoitzari eta talde guztiei, eta zorionak!

2. SOZIALIZAZIO PROZESUAK IZAN DITUEN HELBURUAK

Egindako prozesuak helburu nagusi hauei erantzun nahi izan die:


- *Gipuzkoako herritarren kultura politikoa, 2017* ikerketa: gipuzkoarren artean eginiko ikerketen emaitzak tokiko hautetsi eta adituei zuzenean helaraztea.
- Bertaratutakoen balorazio orokorrak jasotzea: ikerketak sortutako emaitzen ingurukoak, alegia.
- Gipuzkoan kultura politiko eta demokratikoan sakontzeko proposamenak jasotzea; emaitzek ezbaian uzten duten hainbat kontzepturen inguruan hausnarketa egitea.

3. PROZESUAK UTZI DITUEN HAINBAT DATU ETA EZAUGARRI

Guztira, lau lan saio egin dira, eta 133 pertsonak parte hartu dute, honela sailkatuta:

- Tokiko hautetsiak, batez ere udal ordezkariak izan direnak: 118 pertsona.
- Herritar adituak: 12 pertsona.
- Herritarrak: 3 pertsona.

Genero ikuspegitik, 51 emakumezkoak izan dira eta 82 gizonezkoak.



Lan saio guztiek bi ordu inguruko iraupena izan dute.

Bilerak egiteko, espazio publikoak erabili dira: kultur etxeetako aretoak eta udaletako osoko bilkura aretoak.

Lan saio guztiak eskema honen arabera egin dira:

- Agurra: Tokiko alkatearen eta Aldundiko ordezkarien eskutik.
- 2017an eginiko ikerketaren emaitzen aurkezpena.
- Partaideen galdera-erantzunen tartea.
- Azpitaldeetan, talde hausnarketak: bi lan dinamikaren bidez, partaideen balorazioak eta proposamenak jaso dira.
- Ondorioak eta balorazioak.
- Agurra.

4. IKERKETARI BURUZ JASOTAKO BALORAZIOEN ONDORIOAK

Ikerketaren emaitzek sortzen dituzten bat-bateko balorazioak honako gai-eremu edo multzo hauen arabera izan dira:

POLITIKAK SORTZEN DITUEN EMOZIOAK ETA SENTSazioAK

- Atentziora ematen die, eta asko azpimarratzen dituzte politikak herritarrei sortzen dizkien emozioak eta sententzioak. Horiek honela baloratzen dituzte:
 - o Politikarekin lotzen diren sententzioen bilakaera 2009tik 2017ra bitartean: indiferentzia eta ezaxola izatetik, haserrea eta mesfidantza nagusi izatera pasatu da. Orokorrean, oso emozio eta sententzio gordinak direla esaten dute; halere, bilakaera hori pozgarria dela ere adierazten dute:
 - **Indiferentzia eta ezaxola** = hutsarekin/urruntasunarekin lotzen dute
 - **Haserrea eta mesfidantza** = interesarekin lotzen dute.
 - o Interesa ere azpimarratzen dute, eta, batez ere, gazteen interesa iruditzen zaie pozgarria. Partaide batzuk interes hori kritikarekin eta eraldaketarako desirarekin lotzen dute.
 - o *Politika* kontzeptua eta politika jarduera zerekin lotzen den azpimarratzen dute. Ikerketak ematen duen datu hau azpimarratzen dute, jende askok adierazi baitu iritzi hau:
 - "Jarduera politikoak egun ekonomiaren menpe" daude.
 - o Nabarmenezkoa iruditzen zaie, halaber, herritarrek baloratzen duten eta lehenesten duten demokrazia eredia:
 - "Alderdi politikoen beharra demokrazia sisteman". Poza sortzen du iritzi horrek, eta, aldi berean, nolabaiteko kontraesana erakusten du herritarrek alderdi politikoei buruz duten iritziarekin: "alderdiek haien interesak defendatzen dituzte soilik", baina alderdiak beharrezkoak dira... Nola ulertu?
 - o Ordezkaritza politikoen inguruko balorazioetan, berriz, ez dute bilakaerarik sumatzen, eta atentziora ematen du zein imajinario ezkorra duten herritarrek politikariei buruz. Ez zaie guztiz bidezkoa iruditzen, eta herritarrek komunikabideetatik edaten duten eredia dela azpimarratzen dute. Hainbatek esaten du imajinario hori Espainiako hainbat ordezkaritza politikoren profila dela.
 - o Aipatzen da herritarren eta eliteen arteko harremana beti izan dela distantzia handikoa. Harreman historikotzat jotzen dute distantziako harreman hori.
 - o Pozgarria iruditze zaie honako baieztapen hau ere:
 - "Politikarien artean salbuespenak badaude".
 - o Eta pozgarria zaie, gainera, salbuespen horiek tokiko ordezkariekin lotzea.

KONTRAESANAK HERRITARREN IRITZI ETA IKUSPEGIETAN

- Kontraesanak sumatzen dituzte ikerketan azaltzen diren iritzien artean. Horren inguruan iritzi bat baino gehiago agertu da:
 - o Zalantza sortzen zaie emaitzen zintzotasunaren inguruan: jendeak ez ote duen zintzo erantzuten inkesta hauetan eta, ondorioz, noraino ote diren errealitatearen isla iritzi horiek.
 - o Aipatzen dute, bestalde, "balizko kontraesan horiek" politikara gerturatzeko paradigma edo ikuspegi berriaren ondorioak direla, eta herritar profil batek ez duela sumatzen kontraesanik "balizko iritzi kontrajarri" horietan; hau da, gizarte eta norbanako konplexuak sortzen ditu harremanen paradigma berriak.

HERRITARREN PARTAIDETZARI BURUZ

- Partaidetzari buruzko iritziak eta balorazioak nabarmentzen dituzte saio guztietan, eta balorazio eta ikuspegi ezberdinak jasotzen dira:
 - o Herritarrek erabakiarekin lotzen dute partaidetza, zuzenean erabakietan eragitearekin, eta haien ahalegina edo ekarpena emaitzetan ikustearekin.
 - o Aipatzen da "parte hartzea" ahoz aho dabilela, lelo ere bihurtu dela, eta zerbait komuna dela, sigla politiko guztiek baitarabilte. Baina ez daukate argi denentzat esanahi berdina ote duen: zer da partaidetza? Ba ote dago oinarritzko definizio bateratu eta partekaturik?
 - o Oro har denek onartzen dute ideia hau: parte hartzeak kultura politiko berriaren elementu eta ezaugarri nagusienetakoa izan behar du; sistema politikoa osatzera datorrela dirudi.
 - o Nola? Galdera horrek garrantzi handia hartu du saio guztietan; zein da formula? Mekanismoa? Horren harira, esaten dute sistema konpartitua edo partekatua behar dela: garai batean "auzolana" izan zen bezala. Zerbait komuna, denok ulertuko dugun sistema.
 - o Partaideek adierazi dute egungo gizartean oso zaila dela ulertzea partaidetzaren eta gardentasunaren balioa; partaidetzarako praktika errealetara jende gutxi joaten dela ikusten dute, eta kosta egiten zaie hori ulertzea. Ikerketak esplizituki aitortzen du herritarrek partaidetzarako joera apala dutela. Ez dakite zer gertatzen ari den gai honekin, ez norantz doan, ez nola asmatuko den, eta ez etorkizunean nola funtzionatuko duen ere. Parte hartzeko prest dagoen jende multzoa handitzat jotzen dute, baina praktikan hori ez da sumatzen.
 - o Hainbatek ulertzen du parte-hartzearen kontzeptuaren bidez herritarrek erakundeetan eragin nahi dutela, eta, aldi berean, gizarte eraldaketan. Proposatzen da begirada horrekin ulertzea herritarrek partaidetzari buruz diotena.

ELKARTEGINTZA GIPUZKOAN

- Gipuzkoan dagoen elkartegintza oso aipagarritzat jotzen dute bilera guztietan. Harridurarekin ere lotzen dute ikerketan hain kopuru handia agertzea:
 - o Gizarte biziaren seinale dela diote, antolatze joera, antolaketa badela ezaugarri kultural bat gurean, eta hori ona dela nabarmentzen dute.
 - o Elkartegintzaren balioa eta politikaren balioa aurrez aurre jartzen direla sumatzen dute. Ez zaie logikoa iruditzen. Politikagintza eta gizarte sarea bereizten ditu jendeak ikerketan; elkartegintza eta politikagintza gehiegi bereizten direla baloratzen da. Gaia behatzea eta gaian pentsatzea proposatzen da.

- o Hainbatek ez du sinesten aitortzen den kopuru handia, eta argudiatzen dute hori ez dela egunerokoan sumatzen.
- o Beste iritzi batek dio elkarteak izugarri ugari direla azken hamarkadetan. Duela 20 urte herri bakoitzean 4-5 elkarte zeuden gehienez; egun, herri bakoitzean 20 elkarte zenbatzea oso arrunta dela esaten da (Gipuzkoa= herri txikiz eta ertainez osatuta). Horrek badu alde ona, eta kulturalki elkartegintzarako joera adierazten du; era berean, horrek duen dispertsio arriskua ere nabarmentzen da: "fronte gehiegi irekita" egotea beti, eta partaideak talde batean baino gehiagotan egoteak indarrak ahultzea ekartzen duela aipatzen dute.

EGUNGO BALIOAK ETA JARRERAK

- Egungo balioak eta horien bilakaera azpimarratzen dituzte:
 - o Dikotomiak ikusten dituzte, eta horietan eduki asko dagoela sumatzen dute:
 - Konfiantza-mesfidantza jarrerak eta portaerak.
 - Apegoa-desapegoa.
 - Norbanako joerak-talde joerak (gehiegizko indibidualizazioa).
 - Familiak eta osasunak hartzen duten garrantzia.
 - o Beste alderdi bati ere erreparatu behar zaiola diote:
 - Lehiak-gatazkak-kontsentsuak, hiru horien arteko harremanari hain zuzen, eta batez ere horietako batzuen intentsitateari erreparatu behar zaiola diote (lehiak eta gatazkak).

INDIBIDUALIZAZIOAZ

- Indibidualizazioaz, bi gako azpimarratzen dituzte:
 - o Ikuspegi indibidualizatua izateak ez duela esan nahi ez dagoenik kolektiborako interesik, ondorioz, politikarako interesik. Iruditzen zaie asmatu egin behar dela egoera hori ulertzen eta politikagintzan kokatzen.
 - o Indibidualizazio prozesua handia dela eta Gipuzkoan ere egonkortzen ari dela.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAZ

- Erabakitze eskubideaz ere aritu dira, eta horretan iritzi hauek nabarmendu dituzte:
 - o Erabaki nahi duen herritarren portzentajea handia dela, herritarrek haien etorkizuna zuzenean erabaki nahi dutela.
 - o Erabakitze prozesuetan, ikerketan parte hartu duten herritarrek adierazi dute % 50a ez dela nahikoa emaitzak balekoak izateko, eta horrek harridura sortu die. Bi gogoeta egin dituzte horren inguruan:
 - Kopuru handia dela % 50ak bozka ematea.
 - Kopuru apala dela, eta emaitzak onartzeko, ehuneko hori taxuz gainditu beharko litzatekela.
 - o Estatu independentea hautatuko luketen herritarren kopurua ere interesgarritzat eta pozgarritzat jotzen da: % 48,2koa.

GIPUZKOA BESTE HERRIALDEEKIN ALDERATUTA

- Ikerketan elkarrekin alderatzen diren aldagaien kasuan, herritarren iritzietan ikusten da Gipuzkoak antza duela ipar Europako herrialdeekin, eta pozgarritzat jotzen dute alderaketa hori. Ideia horren harira, hainbati poza sortzen dio Espainiatik bereizteak ere.

HEZIKETA ETA TRANSMISIO BEHARRA SISTEMA PUBLIKOARI BURUZ

- Ikerketaren emaitzetan sumatzen da heziketa eta transmisio beharra eremu hauetarako: zer den publikoa, zer den komunitarioa, zer den politika... Belaunaldien arteko haustura sumatzen dute, eta susmoa adierazi dute herritar multzo batek ez ote dituen dimentsio horiek kokatzen (batez ere gazteen frantzia sumatzen da, lotura izango luke indibidualismoarekin). Kezka sortzen da: bezero gisa kokatzen al dira herritarrak politikan eta instituzioetan? Historiaren eta iraganaren ezagutza falta sumatzen dute, eta jakiteko interes falta ere bai.

5. AURRERA BEGIRA EGIKARITZEKO PROPOSATZEN DIREN LAN EREMUAK ETA PROIEKTUAK

Aurrera begira, Gipuzkoako kultura politikoan eta sakontze demokratikoan eragiteko, honako lan eremu eta proposamen hauek jasotzen dira:

BALIO ETA JARRERA KOMUNITARIOAK LANDU BEHARRA, eta praktikan horiek saritu eta prestigioz hornitu beharra:

- KONFIANTZAREN kultura landu eta sustatu, bere onurak erakutsi, erakargarria egin. Aplikatu debagoineren balioa eta ikuspegia kultura politikoaren eremuari: konfiantzaren pedagogia.
- Gardentasunari, zintzotasunari eta lanari prestigioa eman eta saritu.
- Bestearekiko errespetua, gertutasuna, entzuteko gaitasuna, bestea kontuan hartzea eta besteari lekua egin beharra (enpatiaren lanketa).
- Elkartegintzaren kultura saritu.
- Aniztasunaren balioa erakutsi praktikan.
- Akordio eta kontsentsuen kultura landu; adostasunei daukaten balioa eman; elkarlanaren kultura landu.
 - TEORIATIK PRAKTIKARA jauzi egin beharra Gipuzkoan. Lurraldeko proiektu estrategikoak, herritarrak-politika harremantzeko paradigma berriekin landu eta erabaki.
- Desadostasunak/Gatazkak ere normaltasunez hartzeko kultura landu, betiere horien kudeaketa errespetuzkoaren barruan, eta gatazken intentsitatea ere neurtuz. Erronka eta gakoa dago desadostasunak eta gatazkak kudeatzeko eskema berrian asmatzea: errespetuz, bestearen aukera ere onartuz, ... "lintxamendurik" gabe.
- EZBERDINTASUN SOZIALAK BUKATU:
 - Kulturalki eta politikoki aukera berdintasunean egoteko.
 - Bizitza materialean demokrazia eta aukera berdintasuna, harremanak demokratizatzeko.

PARTE-HARTZEA ETA EREDU PARTE-HARTZAILEA LANDU:

- Partaidetza kontzeptua eta sistemaren inguruan **DEFINIZIOA** eta **IMAJINARIO** komuna landu eta sozializatu (ñabarduretarako tarreak utziz).
- **PARTE HARTU ERABAKITZEKO**, tokiko eta lurralde mailako proiektuetan partaidetza sistematizatu proiektu hasieratik:
 - * Partaidetza=erabaki ahalmena, paradigma horrekin landu (*adostasunik ezean, zer egin? Hori ere zehaztu eta landu, erabakiak hartu behar baitira, ezin da zalantzatia den eta erabakitzen ez den eskeman sartu*).
 - * Eremu eta arlo guztiekin lotu partaidetza eta erabakia hartzea:
 - Gai sozialak
 - Afera ekonomikoak
 - Estatusari buruzkoak

- Herri txikietan gehiago **TREBATU** herritarrak **ZUZENEAN ERABAKITZERA** (Gipuzkoaren aukera baliatu).
- **KONTSULTAK, GALDEKETAK** eta erreferendumak egin (legealdi bakoitzeko) eta arautu (udal eta lurralde mailan).
- Mugimendu sozialekin eta elkarteekin lana egin.
- **NOLA PARTE HARTU:**
 - IKERTU, ikerketa eta berrikuntza soziala lotu, horretan inbertitu.
 - TRESNAK, BITARTEKOAK ETA MODU eraginkorrak sortu eta sustatu (udal eta lurralde mailan):
 - Tresna eta gune presentzialak eta fisikoak (batzarrak barne).
 - Tresnak eta guneak sortu *on-line*, bozka elektronikoko fidagarria barne.
 - Prozesu sinesgarriak egin eta ongi azaldu horien eragin maila eta izaera, eta emaitzak ere jakinarazi (fidagarritasunarekin eta sinesgarritasunarekin lotuta; herritarrei egunerokoan eragiten diguten gaien inguruan, izaera guztietakoak).
 - Aurrekontuak eta partaidetza: proiektu iraunkor bihurtu, sistematizatu, erabaki ahalmenarekin (udal eta lurralde mailan).
 - Erakunde mailako partaidetza PROTOKOLOA ADOSTU eta arautu, erabakiak hartzeko eskema parte-hartzailearen barruan.
- **PARTAIDETZA BISTARATU, SARITU, PRESTIGIOZ HORNITU** (udal eta lurralde mailan):
 - Pedagogiaren beharra elkarlanerako, hezi beharra talde lanean eta partaidetzan (herritarrak zein ordezkariak; zeharka eginez, ez formazio zuzenak antolatuz).
 - Kultura komunitarioa bistaratu eta saritu (erakundeen-herritarren arteko proiektu komunak).
- **GAZTEAK ETA PARTAIDETZA ZEHAZKI ETA BEREZIKI LANDU:**
 - Gazteei entzun eta haiengana gerturatu, haien interes, kezka eta beharretara (ez soilik modu folklorikoan edo irudi lanketaren eskeman).
 - Haiek egunerokoan erabiltzen dituzten tresnak eta haien partaidetzarako tresnak aztertu eta egokitu haien ohituretara.
 - Prestigioa eta balioa eman gazteak herrigintzan eta politikagintzan inplikatzeari.
- **JARDUERA EKONOMIKOETAN PARTAIDETZA LANDU, SUSTATU, PRESTIGIOZ HORNITU:**
 - Enpresa eta ekonomia esparrua demokratizatu, horizontalagoa bihurtu.
 - Enpresetan eta lan munduan partaidetza sistemak/egiturak aztertu eta sustatu.
 - Ekonomia jarduerak kolektibizatzea sustatu: horiek lagundu, prestigioz hornitu.
- **GIPUZKOAKO EGITURA POLIZENTRIKOA SUSTATU:**
 - * "Donostiarzentrismotik" aldentu.
 - * Eremu kulturean, sozialean, ekonomikoan:
 - ** Herri txikiak = loturak, kohesioak, proiektu txiki askotarikoak...; herri bizitza sustatu, auzolana sustatu eta eguneratu, BIZITZA KOMUNITARIOA SUSTATU.

KULTURA POLITIKOA ETA DEMOKRATIKOA LANDU; EGUNGO SISTEMAN ERAGIN, SISTEMA POLITIKOA OSATU/ERALDATU:

- **FORMAZIOA, TRANSMISIOA ETA HEZKUNTZA; IRAKATSI ETA HEZI** (zehar lerro gisa, dimentsio eta estamentu guztietan):
 - ELKARRIZKETAREN GIZARTEA helburu delarik, horren kultura landu eta sortu praktikan.
 - Iragana ezagutu, transmititu (ahal den dimentsio zientifikoenean).
 - Politikariak eta talde politikoak etengabe berrikuste ariketatan murgildu, formazioetan murgildu:
 - Elkarrizketarako formazioa.
 - Partaidetzarako formazioa (berdinen arteko partaidetza eta ezberdinen arteko partaidetza).
 - Besteari entzuteko, hura errespetatzeko, onartzeko, lekua egiteko formazioa.
 - Eztabaida eraikitzaileak izateko formazioa.
 - EREDUAK: beste herrialdeetatik ekarri, aztertu, ondorioak atera, ...
 - Elkarteak, erakundeak eta herritarrak orokorrean hezi, transmisio kanalak norabide guztietan zabaldu.
 - Hezkuntzan sartu politikaren eta kultura politikoaren lanketa:
 - Hezkuntzako curriculumetan integratu eztabaidarako jarrerak, jokaerak eta dinamika demokratikoak (unitate didaktiko zehatzak horretarako).
 - Txikitatik hezi eta hazi partaidetzan eta talde eztabaidetan, egitura horizontaletan, botere banaketan.
- **ERAKUNDEETAN LANKETAK EGIN:**
 - Kultura politikoaren lantzeko ekimenak sortu eta sustatu: guneak, mahaiak, proiektuak, programak, ... Ordezkeri eta talde politikoetatik hasita egin lanketa (ez teknikari edo herritarrekin hasita! EREDUA IZAN); horietan jarrerak landu, jarrera komunitarioak eta kolaboraziozkoak.
 - Ezberdinen arteko elkarrizketa ekimenak sustatu, bistaratu, prestigioz hornitu, balioa eman.
 - Konfiantza eremuak sortu, ezberdinen arteko elkarrizketa gune fisikoak sortu.
 - Akordioak landu, balioa eta prestigioa eman. KONTSENTSUAK landu eta helburu bihurtu (ez "bakoitzaren-norberaren" proiektu bihurtu!).
 - Legealdian zehar berrikusketak eta ebaluazioak egin (inkestak, galdetegiak, kontsultak, adierazle sistemak, adituei galdetu eta entzun...), betiere eragiteko helburuarekin, ondorioak praktikara eramateko.
- **TALDE ETA ALDERDI POLITIKOAK EREDU BIHURTU, elkarrizketarako eta errespeturako jarrera eta jokaeretan murgildu):**
 - Ezberdinen arteko elkarrizketa ekimenak sustatu (akordioen kultura landu).
 - Ezberdinen arteko elkarrizketa guneak sortu, konfiantza eremuak sortu.
 - Talde eta alderdien barruan partaidetza sustatu, barneko kideena zein kanpokoena (herritarrena). Egiturak horizontalago bihurtu.
 - Taldeetan pertsona independenteen figura gehiago eskaini, kuota handitu horretarako.

○ **POLITIKARIAK EREDU:**

- Politikarien artean elkarrizketa ereduak sortu eta horiei balioa eman.
- Politikariak balio gizatiarrekin lotuta sozializatu, erakutsi: eraldaketa nahia, gizarte hobea helburu, sakrifizioa, ...
- Politikaria eta politika taldea bereizi: baten gaizki egina ez leporatu siglei, ezta sigletako pertsona guztiei ere. Salbuetsi eta bereizi gaizki eginak, eta dagokion pertsona bakoitzarekin soilik lotu.

○ **POLITIKARI PRESTIGIOA EMAN:**

- Kalitatea eta prestigioa adieraziko duten ikurrak eta sinboloak sortu.
- Ereduek sortu eta saritu.
- Politika plazara, kalera, elkarrizketara atera eta atera dadin sustatu.
- Politikari prestigioa eman eta eguneroko erabaki eta pertsonen gaiekin lotu.
- Politika egiteko eta politikan eragiteko espazioak sortu eta horiei prestigioa eman, erakundeetatik kanpo ere.
- Herrigintza, elkartegintza eta politika gerturatu, eragiteko ahalmenarekin lotu batez ere, erabaki politikoen norabidean landu.

○ **SISTEMA ORDEZKATZAILEAN ERAGIN, SISTEMA OSATU, ERALDATU:**

- Egungo sistema zalantzan jarri eta eragin bere eraldaketan; sistema ordezkatzaile soila gainditu.
- Berrikusi politikan eta kudeaketan egun dauden rolak: gobernuaren/oposizioaren rolak; horiek deseraiki zerbait berria eraikitzeko.
- Sistema ordezkatzailea osatu eta aberastu herritarren partaidetza eta gertutasun gehiagorekin, betiere proiektu politikoetan eta erabakietan eragiteko (partaidetza sistematizatu eredu ordezkatzailean). Paradigma berria = pertsonen partaidetza gehiago eta modu zuzenagoan.
- **LURRALDE MAILAKO AKORDIOA LANDU TALDE POLITIKO GUZTIEN ARTEAN:** lan eskema edo protokoloa adostu, proiektu eta politika nagusiak herritarrekin, adituekin, eragileekin lantzeko eta erabakitzeko.

****HAUSNARKETA EGIN BEHARRA EGUN ELKARREKIN BIZI DIREN BI PARADIGMAREN INGURUAN:**

- *Sistema eta kultura politiko berria = partaidetza, talde lana, komunitatea, norbanakoa, kohesioa, kolaborazioa, ...*
- *Sistema nagusia egun = lehia (bortizkeria barne), konpetentzia, bertikaltasuna, indibidualismoa ...*
- ***Gipuzkoan aukerak badaude: kooperatiben kultura dago, elkartegintzaren kultura dago; hiriak/herriak=indibidualismoa/komunitatea uztartzea gakoa(?), horiek harremanetan jartzea gakoa(?).*